# AGINTARIAK ETA LANGILEAK

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 4741

*996/2025 EBAZPENA, urriaren 15ekoa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arantzazu Mugeta Veiga andrea Uribeko Eskualdeko Erizaintzako gainbegiralearen kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.*

806/2023 Ebazpenaren bidez, Arantzazu Mugeta Veiga andrea Uribeko Eskualdeko Erizaintzako gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean (2023ko azaroaren 22ko EHAA, 223. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Arantzazu Mugeta Veiga andrea Uribeko Eskualdeko Erizaintzako gainbegiralearen kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, berak hala eskatuta.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko urriaren 19ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea, eta interesdunari eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzari horren berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko urriaren 15a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
ARATXU LOZANO OTERO.